

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

361 zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2021eko Azaroa



## Nabarmen<sup>t</sup>zekoak

- > “Me parto”-k irabazi du GetxoExpress film laburren VI. Lehiaketa
- > Gazteentzako Zerbitzuen Bilduma argitaratu da
- > 60 gazte eta haur izan dira tirolina- eta graffiti-jardueretan



## Gurot lehiaketan taldeka parte hartzeko izenematea

Datorren azaroaren 8ra arte zabalik egongo da Gurot galderei buruzko lehiaketan taldeka parte hartzeko izena emateko epea. Alkarbide Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen Bilguneak, horien artean Getxo, martxan jarritako Gurot aplikazioaren lehiaketan 12 eta 17 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Taldeak hiru lagunek osatutakoak izango dira eta galderei erantzuteko epea azaroaren 8tik abenduaren 8ra izango da zabalik.



Getxoko bi talde onenentzako sariak 100 eta 50€-ko txartel bana izango dira, Euskararen Laguna Saltokia sarean gastatzeko eta Bizkaiko finalean parte hartzeko abenduaren 20an Bilboko Azkuna zentroan. Izenematea: <https://gurot.eus/>



### 60 gazte eta haur izan dira tirolina- eta grafiti-jardueretan

Guztira, Getxoko 42 gaztek tirolinen esperientziak gozatzeko aukera izan zuten pasa den urriaren 9an, Lekeitioko Mendexa Abentura parkean. Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako jarduera izan zen. Gainera, herriko 18 gaztek eta hurrek gauza bera egin zuten urriaren 19an Romoko Kultur Etxean egin zen Graffiti tallerrean. Bi jarduerak, *Getxo Ekinez* programaren barruan kokatu ziren, COVID-19aren ondorio sozio-ekonomikoei aurre egiteko alderdi politiko guztiek Udalean adostutako programa, hain zuzen ere.

### BEKAK SARIAK

\* **548 hizkuntza-ikastaro atzerrian.** Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak eskainiko ditu 2022ko udako hiru astetan, DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Eskararak: 2021/11/22ra arte. Argibideak: <https://labur.eus/nnlQV>

\* **Bilbao International Art & Fashion.** Moda-diseinuko lehiaketa 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat. Sariak: jantziak (10.000€), moda-osagarriak (10.000€) eta EAEn lan egiten duen diseinatzaileak aurkeztutako lana (5.000€). Eskararak: 2021/12/15era arte. Informazioa: BIAAF (Gobela kalea 18, behe. Areeta). Oinarriak: <https://labur.eus/jwVQw>

#### Romoko Gaztelekuaren programazioa


##### Azaroa

**Hilak 4, osteguna:** TXAPELKETA: JUST DANCE  
**Hilak 6, larunbata:** IRTEERA: URDUÑA  
**Hilak 10, asteazkena:** SUKALDARITZA: TXOKOLATEZKO TARTA  
**Hilak 12, ostirala:** TAILERRA: ESCAPE ROOM  
**Hilak 13, 20, larunbata:** TAILERRA: ITZAL ANTZERKIA  
**Hilak 18, osteguna:** TAILERRA: GAZTEAK ETA SEXUA  
**Hilak 24, asteazkena:** TAILERRA: A25  
**Hilak 27, larunbata:** IRTEERA: MUSEOA  
**Hilak 30, asteartea:** EKINTZA: TENPERAK

#### Algortako Gaztelekuaren programazioa

##### Azaroa

**Hilak 4, osteguna:** ASANBLADA: ABENDUKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 5, 12, 19 eta 26, ostirala:** TAILERRA: ANTZERKIA  
**Hilak 6, larunbata:** IRTEERA: EGUN PASA URDUÑAN (ORIENTING)  
**Hilak 10, asteazkena:** TXAPELKETA: FIFA  
**Hilak 13, larunbata:** KUKUPRAKA LUDOTEKA BISITAN  
**Hilak 20, larunbata:** JAIA: GAZTELEKUAREN 12. URTEURRENA  
**Hilak 23, 24, 25 eta 27, asteartea, asteazkena, osteguna eta larunbata:** TAILERRA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



## “Me parto”-k irabazi du GetxoExpress film laburren VI. Lehiaketa

Herriwatchen *Me parto* ekoizpenak irabazi ditu lehen saria (1.000€) eta publikoaren saria (300€), joan den igandean, urriaren 24an, Muxikebarrin amaitu zen GetxoExpress izeneko film laburren lehiaketaren seigarren edizioan, sari-banaketarekin amaitu zena.

Ana Hormaetxeak, Iñigo Aranburuk eta Aner Etxebarriak osatutako epaimahaiak bigarren saria (800€) Peras Bionicas-eko *Diez de espadas* filmari eman zion, eta Getxo-

ko errealizaziorik onenarena (Lauren Getxo zinemetarako sarrera-bonu bat) Li Siaux-en *Benetan Auskalo* filmari.

Euskarazko film laburrik onena, berriz, Ataraxiako *Ane* izan zen, eta emakumezko zuzendari baten film laburrik onena, Eesomeko *En la nada te veo*.

Aurten ere, lehiaketa honek Getxo plato bihurtzea lortu du, eta 22 talde baino gehiago bildu ditu lehiaketan. Lehiaketan, *Bihar hobeto* gaia hartuta, gure udalerrian 42 ordutan film la-

bur bat asmatzea, grabatzea eta ekoiztea proposatu zuen.

Halaber, *GetxoExpress Pro* atalak, Hemen Elkartearekin batera antolatutak eta ikus-entzunezkoen sektoreko profesionaleri eskainiak, arrakastaz itxi zuen edizioa, ia ehun lagunek parte hartu baitzuten.

*GetxoExpressek* Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa du, Bizkaiko Zubia- ren bermea eta Katz Estudio, Nawa Estudio eta Nire enpre- sen laguntza.

### Urte amaierara arteko tailerrak eta ikastaroak jasotzen ditu, besteak beste

## Gazteentzako Zerbitzuen Bilduma argitaratu da

Udaleko Gazteria Zerbitzuak Gazteentzako Zerbitzuen Bilduma argitaratu du, ikastetxe eta institutu publiko zein itunduetan banatzen dena, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleei. Argitalpenak Gazte Informazio Zerbitzuak eskaintzen duen eskaintza jasotzen du: GauEgun (Algorta) eta GureGune (Romo) Gaztelekuak, hautazko informazioa sakelako telefonora edo posta elektronikora bidaltzea, aholkularitza psikologikoa eta sexologikoa, informazio orokorra (nazioarteko txartelak, bi-

daiei buruzko bibliografia, lan- eskaintzak...) eta urte amaierara arteko ikastaroak eta tailerrak. Azken horiei dagokienez, honako leku hauek daude oraindik: muskulu-kateak ikastaroa (15-30 urte, euskaraz), azaroaren 13an eta 27an (larunbata), 10:30etik 12:30era, Romo Kultur Etxean; lan-orientaziorako tailerra (17-30 urte, gazteleraz), abenduaren 4an (larunbata), 10:00etatik 13:00etara, Getxolanen; eta bizikletak konpontzeko tailerra (11-17 urte, euskaraz), abenduaren 18an (larunbata), ordu berean, Ro-

moko Gaztelekuan. Ikastaro guztiak dohainik dira eta irisgarriak dira ezgaitasunak dituzten gazteentzat. Interesa duten pertsonak izena emateko moduak honako hauek dira: Gazte Informazio Bulegora deituz (944 660 353 telefonoa); [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) posta elektronikora mezua bidaliz, izena, ikastaroa eta harremanetarako telefonoa jarritz; interneten bidez ([www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) helbidean); eta Gazte Informazio Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako etorbidea 98).

